

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko azaroaren 7tik azaroaren 13rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Boletín oficial del Estado de día 13/11/2020

- Ebazpena, 2020ko azaroaren 4koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratu eta argitaratzen den banku-sektorearen hitzarmen kolektiboaren aurreraeragina luzatzeko akordioa. **2020-14168 xedapena - 2 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/11/07

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA.- Jostailuak Segurtasun-arauak.** - PCM/1042/2020 Agindua, azaroaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen den jostailuen segurtasunari buruzko abuztuaren 26ko 1205/2011 Errege Dekretuaren II. eranskina. **2020-13799 xedapena - 3 or.**

2020/11/11

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. -**
 - **Zirkulazio Erregelamendu Orokorra. Ibilgailuak.** - 970/2020 Errege Dekretua, azaroaren 10ekoa, zeinaren bidez aldatzen diren Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra -azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuaren bidez onartua- eta Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra -abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartua-, trafikoko hiri-neurriei dagokienez. **2020-13969 xedapena - 6 or.**
 - **Gidariak. Araudia.** - 971/2020 Errege Dekretua, azaroaren 10ekoa, zeinaren bidez aldatzen den maiatzaren 8ko 818/2009 Errege Dekretuak onartutako Gidarien Araudi Orokorra. **2020-13970 xedapena- 11 or.**

día 12/11/2020

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. - Zerbitzu elektronikoak.** - 6/2020 Legea, azaroaren 11koa, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen zenbait alderdi arautzen dituen. 2020-14046 xedapena - 21 or.
- **OSASUN MINISTERIOA. - Mugak. Osasun-kontrola.** - Ebazpena, 2020ko azaroaren 11koa, Osasun Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, Espainiako sarrera-puntuetan egin beharreko osasun-kontrolei buruzkoa. 2020-14049 xedapena - 12 or.
- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA. - Euskal Autonomia Erkidegoa. Hitzarmena.** - Ebazpena, 2020ko azaroaren 4koa, Idazkaritza Nagusi Teknikoarena, zeinaren bidez argitaratzen den Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren arteko hitzarmena luzatzeko eranskina, Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioaren kudeaketa administratiboa egiteko. 2020-14089 xedapena - 3 or.

2020/11/13

- **BALORE MERKATUAREN BATZORDE NAZIONALA. - Inbertsio kolektiborako erakundeak.** - 2/2020 zirkularra, urriaren 28koa, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalarena, inbertsio-produktu eta -zerbitzuen publizitateari buruzkoa. 2020-14107 xedapena - 14 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/11/10

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** - 243/2020 DEKRETUA, azaroaren 3koa, zeinaren bidez kargutik kentzen baitira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko kide batzuk, eta beste batzuk izendatzen. 4782 xedapena - 2 or.

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2020/11/09

- **FORU AGINDUAK (GIZARTE POLITIKEN SAILA).** - 145/2020 Foru Agindua urriak 30koa, 137/2020 Foru Agindua, aldatzen duena, irailaren 23koa, zeinak arautzen baititu Arabako Lurralde Historikoko adineko pertsonentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetako bisitak eta irteerak COVID-19ak eragindako osasun krisialdiak iraun bitartean. 3302 xedapena - 3 or.

2020/11/11

- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 35/2020 Foru Dekretua, azaroaren 3koa. Onestea zerga plangintzako

mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazio betebeharrak garatzea. 3335 xedapena - 9 or.

2020/11/13

- **EUSKADIKO ADMINISTRAZIOAK. - EUSKO JAURLARITZA (LAN ETA ENPLEGU SAILA)** 2021eko laneko jaiegunen egutegia. Akatsak zuzentzea
Zuzendua: 2020/2939. 3369 xedapena - 1 or.

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2020/11/09

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** -Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 1808/2020 FORU AGINDUA, urriaren 29koa. Honen bidez, aldatu egiten da 60/2015 Foru Agindua, urtarrilaren 9koa, 20R eredua onesten duena. 20R eredua: bat-egiteen, zatiketen, aktibo-ekarpenen, balore-trukeen, aktiboaren eta pasiboaren lagapen osoaren, eta Europako sozietate edo kooperatiba-sozietate baten egoitza Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzearen zerga-araubide berezia aplikatzeko jakinarazpena. 703 xedapena - 10 or.

día 12/11/2020

- **GIZARTE EKINTZA SAILA**
 - Bizkaiko Foru Aldundiaren 95/2020 FORU DEKRETUA, azaroaren 10ekoa. Honen bidez, aldatu egiten da Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 21eko 113/2016 Foru Dekretua - zeinaren bidez mendetasun-egoeran dauden adinekoak eguneko zentroetan sartzeko sistema eta dagozkien banakako laguntza ekonomikoak arautzen batira -, familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa jasotzen duten pertsonei larritasun handiko egoeretan laguntzeko. 724 xedapena - 2 or.
 - Bizkaiko Foru Aldundiaren 96/2020 FORU DEKRETUA, azaroaren 10ekoa. Honen bidez, aldatu egiten da Bizkaiko Foru Aldundiaren irailaren 10eko 140/2019 Foru Dekretua -zeinak egoitzen zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa arautzen baitu-, familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa jasotzen duten pertsonei larritasun handiko egoeretan laguntzeko. 725 xedapena - 2 or.
 - Gizarte Ekintzako foru diputatuaren FORU AGINDUA 54652/2020, azaroaren 10ekoa. Honen bidez, familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoaren jasotzaileak COVID-19tik babesteko neurriak onartzen dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren irailaren 10eko 140/2019 eta ekainaren 21eko 113/2016 Foru-Dekretuei dagokienez. 736 xedapena - 3 or.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2020/11/09

- **GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK.** - Ebazpena, 2020ko azaroaren 4koa, Gipuzkoako Batzar Nagusia, honako Foru Dekretu-Arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 8/2020 Foru Dekretu-Araua, urriaren 13koa, COVID-19aren zenbait ondorio arintzeko presako neurri osagarriari buruzkoa. 5842 xedapena – 1 or.

2020/11/10

- **DIPUTATU NAGUSIA.** - 2/2020 Foru Araua, urriaren 30ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2018ko Kontu Orokorra onartzen duena. 5685 xedapena – 9 or.

2020/11/12

- **DIPUTATU NAGUSIA.** - 3/2020 Foru Araua, azaroaren 6koa, iruzur fiskala eragozteko lanabes teknologikoak erabili beharra ezartzen duena. 5886 xedapena – 14 or.
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 9/2020 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 10ekoa, Gipuzkoako toki entitateei aplikatzekoak diren ezohiko eta presazko finantza neurriari buruzkoa. 5997 xedapena – 4 or.

2020/11/13

- **EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA.** - 0133/2020 Ebazpena, 2020ko azaroaren 12koa, ehiza larriko espezieak (basurdea eta orkatza) ehizatzea ezinbesteko jardueratzat jotzekoa, 36/2020 Dekretuak, urriaren 26koak, lehendakariarenak, 2. Artikuluaren 2 j) apartatuaren arabera. 6033 xedapena – 2 or.

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2020/11/12

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko maiatzaren 25eko 2020/701 Erabakiaren (EB) akats zuzenketa, COVID-19aren pandemiaren testuinguruan zabalkunde eta auzotasunaren bazkideei laguntza makrofinantzarioa emateari buruzkoa (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, L 165, 2020ko maiatzaren 27koa).
-

- 378 xedapena - 1 or.

2020/11/13

- 2020/1694 Araudia (EB), 2020ko azaroaren 11koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, zeinaren bidez aldatzen den 168/2013 zenbakiko Araudia (EB), L kategoriako serie-amaierako ibilgailuei buruzko neurri zehatzei dagokienez, COVID-19-aren pandemiari erantzuteko (testu egokia EEEren ondorioetarako). 1694 xedapena - 2 or.

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO